

**Alkate Jauna
Ezkio-Itsasoko Udala
20709 Ezkio-Itsaso**

2015 URRI, 19

2015 URRI, 19

Honako Ezkio-Itsasoko Udala,

2015 URRI, 19

Alkate Jauna

Ezkio-Itsason, 2015eko urriaren 19an

Alkate Jauna:

Itsaso Bherria Elkarte Eragileak *"Udalerrri Independentea Eratzeko Itsasoren Banaketa Espedienterako"* dokumentua aurkeztu eta Ezkio-Itsasoko Udalaren Osoko Bilkurak, 2015eko uztailaren 29ko Ezohiko Batzarrean, erabakitakoaren arabera, espedientea jendaurreko erakustaldian jarri ondoren, Ezkioko Herri Batzarrak bere ekarpena egin nahi dio espediente horri.


Horregatik,

ESKATZEN DIZUGU:

Ezkioko Herri Batzarrean onartu dugun idatzi hau ekarpen gisa gehitzea banaketa-espedienteari eta, aldi berean, Ezkio-Itsasoko webgunean, banaketa-prozeduraren ataleko dokumentuen artean, zintzilikatzea.

Besterik gabe, zure arreta eskertuz,

EZKIOKO HERRI BATZARRAREN IZENEAN



Tomas Etxaniz Mendiguren

EZKIOKO HERRI BATZARRAREN EKARPENA UDALERRIAREN BANAKETARI BURUZ

Itsaso Bherria elkarte eragileak, 2015eko uztailaren 27an, Itsaso Ezkio-Itsasotik banatzeko aurkeztutako espedienterako txostena irakurri ondoren, banaketarako arrazoi eta moduaren inguruan gure iritzia azaldu nahi dugu.

Hasieratik utz dezagun garbi ezkiotarron jarrera: Itsasoarrek herri independente bat eratzeko duten nahia eta eskubidea guztiz errespetatzen ditugula adierazi nahi dugu. Beste kontu bat da banaketa arrazoitzeko aipatzen diren zenbait gauza guri oso zehatzak edo zuzenak ez iruditzea.

1. TERMINOLOGIA: Txostenean behin eta berriro erabiltzen dira **anexio** eta **desanexio** hitzak, *elkartze* eta *bat-egite* edo *banatze*, *bereizte*, ... terminoekin batera. Lehenengo biak ez dira batere egokiak gure kasurako, bere garaian ez baitzen 'anexiorik' izan, eta beraz orain ezin 'desanexiorik' planteatu. 1964ko agirietan "fusión voluntaria" aipatzen da. Beraz, Ezkiok ez zuen Itsaso bereganatu edo anexionatu; bi herriek bat egin bazuten, orain banatzea planteatu daiteke.

2. 1964ko bat-egitea, zenbateraino izan zen 'boluntarioa'? Garbi dago herritarrei ez zitzaizela erreferendumean iritzirik eskatu, eta orduan gauzak egiten ziren bezala egin zela: garaiko udal-ordezkarien bidez onartu zen bat-egitea. Zenbateraino izan zen behartua? Ez dirudi Ezkion eta Itsason aurkako iritzi sendorik sortu zenik; zeren eta orduan ere elkartu nahi ez zuenak izan zuen aukerarik bat-egiteari uko egiteko: hau da Gabiriaren kasua.

3. Noiztik dator Itsasoarren banatzeko nahia? *"Itsasoko herritarrek banaketaren aldeko dinamika **aspaldidanik** badute ere"* (22 or.) ... *"Hala ere, ItsasoBherria sortu aurretik, Itsasoko herritarrek **aspaldidanik** euren dinamika propioa daramate, bai banaketari dagokiona zein bestelako jardura soziokulturalei dagokiena"* (23 or.)

- Oro har, esan behar da ia 50 urteko 'ezkontza', estu-estua izan ez bada ere, nahiko egokia eta itxurazkoa izan dela oraintsu arte, hau da, arazo edo konponezin handiegirik gabekoa, eta aurrekari txikiren batzuk gorabehera, banaketaren alde Itsason berriki sortu den dinamika azken bi urteotakoa dela. ItsasoBherria 2014ko azaroaren 29an sartu zen Elkartearen Erregistroan.

- Duela 2-3 urte informaturik egon zitezkeen itsasoarrei (158 lagun baitira) galdetuta ea jarrerarik edo mugimendurik zegoen banatzeko, ezetz erantzuten zuten zalantzarik gabe.

4. Banaketarako arrazoi historiko eta administratiboei dagokienez, esaten da 1964ko bat-egitearen ondoren *"Herriak (Itsasok) galera handia jasan zuen, bi eskolen itxiera eta zerbitzu ezagatik biztanleriaren jaitiera bortitza eman zen"* (25. or.)... *"Elkarketa edo anexio honek, gainera, Itsasori babesgabezia ekarri zion, bi eskolen itxiera, liburutegiaren eta musika-eskolaren galera, etab."* (27 or.).

- Galera horiek bi herrien bat-egitearekin lotzea ez da batere serioa. Itsason izandako aldaketa horiek Ezkion ere gertatu dira, eta zerikusi gutxi dute udalerrri bakarra osatzearekin. Are gehiago, azken 50 urteotan **landa-eremuko herri txiki askotan gertatu diren aldaketa demografiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen ondorio dira.** Herri hauetan jaiotza-tasa asko jaitsi da; gazteek baserri-lanera baino nahiago izan dute inguruko herrietako industria edo zerbitzuetara jotzea ogibide bila; etxebizitza-politika egokirik ere ez da izan azken urteotara arte gazteak herri hauetan geratzeko edo bertara erakartzeko. Bere garaian **lau** eskolak itxi ziren eta haurrak inguruko herrietara joatera behartu... Horrek guztiak herritarrak, alde batekoak nahiz bestekoak, kanpora begira eduki gaitu luzaroan. Nolabait ere, horren aurkako joera azken urteotan Santa Luzia-Anduagan gertatu da batez ere, etxe-mordoxka egin baita eta bertako gazteak bertan geratu eta kanpotik jende gaztea erakartzeko modua sortu baita. Alegian ere proposatu zen etxeak egitea, baina ez zen gauzatu eskari urriagatik. Ezkioko goiko herri-gunean ere ez da Itsasoko herri-gunean bezalako etxebizitza-politikarik aurrera eramán.
- Itsasoko Txostenean esaten da: *"...Ezki-Itsasoko udalerrriaren parte izatera pasatzean, itsasoarrek ezkiotarrekiko menpekotasun instituzionala izan dutela kontsideratzen dute. Biztanleriaz txikiagoak izanik ezkiotarren erabakiekiko nagusitasuna eman dela nabarmentzen da"* (27 or.). Ezkiotarrok ez dugu hau ulertzen. Herri-antolaketarako erabaki guztiak udalean hartu izan dira beti eta Udala Ezki-Itsasoko herritarren gehiengoaren borondatearen arabera osatu izan da; inoiz ez zaie itsasoarrei Udalean sartzeko aterik itxi, eta bai behin eta berriro hori eskatu eta erregutu, beti nahi adinako erantzunik lortu ez bada ere.
- Oro har, orain itsasoarrek azaleratzen dituzten kexu askok ez dute zerikusirik udal bakarra osatzearekin. Gehiago dira geure -Ezkioren eta Itsasoren- ahuleziaren ondorioak: gutxi gara, oso habitat

sakabanatua dugu, urte askoan ez dugu Eskola txikirik izan bertan (oraintxe berreskuratu den arte, alegia), diru-baliabideak mugatuak dira inbertsio potolo samarretarako... Eta dena esan behar bada, udalerraren alde lan egitera deitu denean (udal-zerrendetan sartzeko, etab.), une askotan parte-hartzea urria izan da edo ez nahi bestekoa .

5. **Arrazoi geografikoei dagokienean**, txostenean behin baino gehiagotan aipatzen da udalerrri bakarra osatzean, zerbitzuak urrundu egin zitzaizkiela itsasoarrei eta bat-egite aurreko egoerara itzuli nahi dutela, alegia, zerbitzuak Itsason goiko herri-gunean izatera.

- **Bi herriek udalerrri bakarra osatzean, ezinbestean mugitu behar ziren zerbitzuak bien erdigunerantzago.**
- Distantziak neurtzerakoan ezin da hartu batetik Itsaso (goiko herri-gunea) eta bestetik Ezkio orokorrean, hemen goiko herri-gunerik ez balego bezala. Itsasotik zerbitzu nagusiak 6,5 km-ra daudela esaten da. Zenbat daude, bada, Ezkioko goiko herri-gunetik mediku-etxera eta orain Eskola Txikira, urte askoan Ezkio-Itsasoko udaletxe izandakora?
- Bestalde, gaur egungo zerbitzuen eta duela 50ekoen izaeran bada alderik. Eta bada ezberdintasunik geure mugitzeko baliabide eta ohituretan ere. Ezkio eta Itsasoko biztanleak hain barreiatua egoteak ez du geografikoki zerbitzu publikoen gertutasunean asko laguntzen, ados, baina ez dugu uste sakabanatze geografiko soilak zerbitzuen kalitate eta eraginkortasunerako kalterik dakarrenik.

6. **Arrazoi soziokulturalei buruz:** *"Ezkio-Itsaso ia 50 urtez udalerrri bakarra izan arren, bi herri guneen artean, Itsaso eta Ezkio, ez da lortu udalerrri mailako dinamika soziokultural bateraturik" (28 or.).*

- EZ ETA BAI. Ez askok nahiko genukeen beste, BAINA BAI orain aitortu nahi dena baino askoz gehiago. Ezin da dinamika soziokulturalaz hitz egin udalerrri honetan **YARTU kultura-elkartea** aipatu gabe.

Yartuk, 2000an sortu zenetik gaur arte, lan handia egin du Ezkio eta Itsasoren kultura-bizitza suspertzen, jendeari bilgune bat eta harremanetarako aukera eskainiz..., gauza batzuetan arrakasta handiagoarekin eta beste batzuetan txikiagoarekin. Eta bere sorreratik, eguneroko lanean nahiz karguetan eta abar, Itsasoko jendearen presentzia eta ekarpena oso garrantzitsua izan da elkartean. Yartu udalerrri osoko jendearen topagune izan da. Yartuk,

betiere Udalarekin eta kasuan kasuko eragileekin lankidetzan, proiektu interesgarri asko gauzatu ditu, eta jarraitzen du horretan.

Ekintza batzuk aipatze aldera, **Zaharkinak** bilketa eta erakusketa Fermin Leizaolarekin; bi herrietako **Argazki Zaharren** bilketa eta fitxaketa (gero auzoetako jaietan erakusketak egiteko baliatu izan dena); **EUP aldizkaria** 7. aletik aurrera, gure memoriaren zati bat jasotzeko balio izan zuena; **txangoak**, bai geure herria ezagutzeko (mugak, txokoak, ondarea...) eta bai Euskal Herria ezagutzeko (urteroko irteera Fermin Leizaolaren eskutik), eta gaur egun baita Durangoko azokara joateko eta gero Gipuzkoa-Bizkaiko museoren bat ikusteko ere); bi herrietako **ondarearen azterketa** serio samarra egin zen Lenbur-ekin, Itsasoko pertsona bat horretan aritu zelarik zenbait hilabetez (besteak beste, horren ondorioz azalpen-panelak daude jarrita bi herrietako hainbat interesgunetan); II. Errepublikak eta 1936-39ko Gerrak udalerrri osoan izandako eragina aztertzea eta memoria historikoa jasotzea. **Igartubeiti museoarekin** elkarlanean, bereziki **Sagar Astearen** inguruan, ardura handia izaten du Yartuk, eta duela bi urtera arte Itsasoko jendearen protagonismoa oso handia zen horretan; martxoan **Barrikotea** egiten da, bi herrietako jendea omenduz, etab.; **ikastaro** asko antolatu da, Udalarekin lankidetzan esan bezala, besteak beste Zeramikakoak, haur nahiz nagusientzat, Itsasoko Pott tailerraren eskutik; **haur eta gaztetxoentzako** hainbat ekintza antolatu da: ludotekak, udalekuak...; **Argazki-lehiaketa** udalerriko gaiekin; **Santa Ageda** kantu-bira Ezkio eta Itsasoko auzoetatik; **hitzaldiak, antzerkiak, kantaldiak, euskararen inguruko ekintzak** (Korrika...) eta abar eta abar. Eta honetan guztian, Itsasoko jendeak –proportzioan– ekarpen handia egin du, gutxienez duela bi urtera arte.

Gure auzoen arteko topaguneak urri ditugu (bakoitzak bere eliza du, bere ostalua, bere txoko edo soziedade...) eta, normala den bezala, bakoitzak bere dinamika ere beti izan du zenbait gauzatan (norberaren jaiak antolatzen eta abarretan). Baina Yartuk izan duen eginkizuna bi aldeetako jendea elkartzeko eta abar ez da ahaztekoa eta gutxiestekoa. Dena den, garbi dago ez dela nahikoa izan.

- Horretaz guztiaz gain, zerbitzu bikaina ematen duen Udal **Liburutegia** dugu. Eta aipagarria Herriko **abesbatza** ere, bi herrietako jendez osatua; Itsason nahiz Ezkion elizkizun edo bestelako ekitaldietan estimatzeko eginkizuna betetzen duena.

Erretiratuentzat bereziki antolatutako bazkari eta irteerek ere arrakasta izan ohi dute.

- Guzti horregatik, gure udalerriak nabarmentzeko kultura-jarduera izan du (eta du), bere apaltasunean pareko udalerrien miresmena sortu izan duena. Horregatik, orain Itsasok esatea "*Hala ere, dinamika soziokultural hori mugatua ikusten dute, instituzionalki Ezkio-Itsasoko Udalak hartutako zenbait erabakiren pekoa baita neurri handi batean (aurrekontuei dagokienean...), eta zailtasunak izan ditu bere oroimena, ondarea eta duintasuna mantentzeko*" (28. or.) benetan ulergaitza gertatzen da Ezkio aldean.

7. Arrazoi ekonomikoei buruz, berriz, "*Ezkio eta Itsasoren bat egitearekin, Itsason eta Ezkion egindako inbertsioen arteko desoreka nabaria dela adierazten dute Itsasoko herritarrek; inbertsio-desoreka horrek, bi herrietako ondarearen egungo egoera oso desberdina izatea ekarri duelarik, besteak beste*" (28. or.).

- Oro har, inbertsioak inoiz ez dira egin bi herri geundela pentsatuz eta berariaz alde batean eginez bestea kaltetzeko asmoz. Egin dira leku zentriko samarra bilatuz, biztanleriaren kontzentrazio edo bilguneak ere kontuan izanda (hortik Santa Luzia-Anduaga eta Alegiaren arteko aldea), eraikin edo lur egokiak zeuden tokietan eta betiere Ezkioko nahiz Itsasoko jendearentzat berdin izatekotan.

8. Banaketaren onuren artean, "*udal kudeaketari dagokionean, Itsasoarren parte-hartze maila areagotzea: bai proposamenei dagokienean, bai erabakietan ere*" (31. or.) aipatzen da. Udalerrri batuan Itsaso aldeko alkate batzuk ere izan dira, zinegotziak ia beti... eta guztien onespenez egin da egindakoa.

9. Ezkio eta Itsasoko ondarearen banaketarako prozeduraren urrats eta irizpideen inguruan, gai hori lantzeko osatutako batzordean ezkiotarron ordezkariak egindako proposamena babesten dugu.

- Diru-soberakinaren banaketa, bereizketa ematen den unean dagoenaren araberakoa izango da, biztanle kopuruaren irizpidea kontuan hartuta.
- Ondarearen eta azpiegitura publikoetako eta hauen zaintza, mantetze-lan eta kudeaketarako material eta tresneria (ondasun

higigarria) ez da balorazio ekonomikoan sartuko eta partekaturiko zerbitzuetan erabilera-eskubide berdina izango dute bi herriek.

- Ondasun higiezinak ere geografikoki kokatuta dauden herriaren jabetzakoak izanik, zenbait zerbitzu partekatzeko hitzarmenak egingo dira bi udalerrien artean. Ez gara sartuko ondasun hauen balorazio ekonomiko edo ordainetan, eta orain arte egindako lan eta inbertsioak HERRI BAKAR baten ikuspegitik egin izan diren printzipioan oinarrituko gara.
- Hala ere, proposamen hauek, eta besterik balego, batzordean bertan negoziatu eta adosteko borondatea dago eta erabaki horiek bi herrien artean egindako hitzarmenen bidez gauzatuko dira.

Ezkio-Itsason, 2015eko urriak 19